

Izena _____ Data _____

1 Osatu testua pertsona-izenordain egokia erabiliz.

neuri zuk Zuek berari gu neuri Neuk

Asteburuan bizikletan ibiltzera joango gara _____ gurekin etorriko zarete? _____ eramango ditut bizikletak furgonetan. _____ janaria erosteaz arduratu zaitezte, ados? Alaine esan du oraingoa _____ tokatzen zaiola ibilbidea aukeratzea baina ez du astirik, beraz, _____ eskatu dit arduratzeko. Aitor, _____ ezagutzen al duzu ibilbide politen bat?

2 Aukeratu izenordain zuzena esaldi bakoitzean.

- Alaine eta Izaro *elkarri* / *elkar* begira egoten dira gelan.
- Neure buruari / Neure buruarekin esaten diot: lortuko duzu!
- Guk geuk zaindu behar dugu geure buruari / geure burua.
- Elkarren / Elkarri gainean utzi ditut bizkar-zorroa eta txapela.
- Hainbat urte daramate *elkarri* / *elkar* ikusi gabe.
- Mikel oso harro dago bere buruarekin / bere buruari.



3 Aukeratu izenordain zehaztugabea esaldiak osatzeko.

- Hori ez zaio _____ gertatu, ezinezkoa da!
☐ norbaiti ☐ inori ☐ edonori
- _____ giltzak utzi ditu mahai gainean.
☐ Norbaitek ☐ Inork ☐ Edonork
- Gure txakurrak _____ jaten du.
☐ zerbait ☐ ezer ☐ edozer

4 Lotu zatiak esaldiak osatzeko.

- | | |
|------------------------------------|----------------------------------|
| Gu txikitan larunbatero • | • presaka nindoan. |
| Atzo, kalean gurutzatu ginenean, • | • patata-tortilla afaldu genuen. |
| Okindegira iritsi zinenean, • | • denda ixten ari ziren. |
| Herenegun, • | • igerilekura joaten ginen. |